

281. alea - 2023ko otsaila
Debako herri aldizkaria

Zuhetza W.L. deba euskara
elkartea

Berriketan

IKER AGIRREZABALA · Urpeko arrantzalea

Kresala zainetan daraman arrantzale nekaezina





ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com
www.asesoriadeba.com
Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

ADATS ILEAPAINDEGIAK MUTRIKU
Behoko plaza 1 MUTRIKU
T. 943 60 39 45

f www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak



URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tfnno.: 943 191 776
20820 DEBA




ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

Arteondo

Autobusak S.L.

arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

RAIKETAK S.L. SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behea - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com



LAMARIANO

Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
943 19 12 52



Higiezin zerbitzua • Inmobiliaria
688763289 • inmolhome@gmail.com



SANTIAGO GARCIA ORDOÑEZ

Abokatu eta ekonomialari elkartuak
Zerbitzu juridikoak
670 411 444
centrolegal@sgobogados.eus

BOHÈM

BOUTIQUE

LERSUNDI KALEA 25 - DEBA
T 608 135 775
E MAITE. BOHEM@GMAIL.COM



ARENA BAR



Argazkilaria

Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com

Tel: 685 703 843



BERRIKETAN 281

2023ko otsaila

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bediauneta Alkorta

AURKIBIDEA



12 ELKARRIZKETA
Kultur Elkartearen aurkeztuko den 'Meteo' ikuskizunaz mintzo da Miren Narbaiza



14 ERREPORTAJEA
Debabarrena osora zabaldu dute Zaporeak elkarteari laguntzeko erronka (DKTren edukia)



16 ELKARRIZKETA
Muturreko urpeko arrantza eta bere ibilbideaz jardun du Iker Agirrezabalak



20 ERREPORTAJEA
Boxeoarekiko zaletasuna sustatzu, bidean aurrera doa Jo Ta Su Boxing elkarteak



22 ARGAZKI BILDUMA
Kaldereroek eta inauteriek lagatako irudiekin osatutako bilduma ikusgai



30 AGENDA
Datozen asteotan egingo diren jarduerak eta ekimenak jaso ditugu atal honetan

Zuhatzza euskara
www.deba elkarteak

Berriketan

ARGITARATZAILEA
Zuhatzza Euskara Elkarteak
HELBIDEA
Iifar kalea, 12 behe, 20820 (Deba)
TELEFONOAK
943 19 13 83 / 632 04 33 22
HEDABIDEAREN E-MAILA
berriketan@zuhatzza.com
ELKARTEAREN E-MAILA
koordinatzailea@zuhatzza.com
ERREDAKZIOA
Izaro Aulestiarte, Nerea Bediauneta
eta Alex Turrillas
KOORDINATZAILEA
Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA
Joseba Escudero eta Alex Turrillas
LOGOTIPOAREN DISEINUA
Iñaki Elosua
MAKETAZIOA
Maku Oruezabal
TIRADA
1.400 ale
MAIZTASUNA
Hilabetekaria
INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)
LEGE GORDAILUA
SS/246/200.
ISSN: 2171-7656

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatzza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astea baino lehen.

Gutunak



Formatu eta diseinu berriz jantzi dugu 'Berriketan'

Aro berri bat hasi du *Berriketan* aldizkariak eta eskuen artean daukazuen ale honetan ikus daitezke berrikuntzak. Itxura aldetik, formatu eta diseinu berria izango du aurrerantzean. Aurten beteko dira 25 urte Zuhatza Euskara Elkarteak hilabetekariaren lehen zenbakia argitaratu zuenetik eta aldizkaria berrituta plazaratzeko data esanguratsua iruditu zaigu.

Agian, neurriari dagokiona izango da aldaketarik nabarmenena irakurlearentzat; orain arte erabili duena baino txikiagoa da formatu berria, baina handiagoa da orrialde kopurua —20 orrialde izatetik 28 edo 32 izatera pasa da, eta hainbat kasutan gehigarri bereziak ere izango ditu bere baitan—. Txikiagoa izateak abantailak eskainiko dizkie irakurleei zein banatzaileei; edonora eramateko eta postontzietan sartzeko erosoagoa da, adibidez.

Diseinua bera ere bestelakoa da, landuagoa eta modernoagoa; pisu handiagoa dute, esate baterako, espazio zuriek eta irudiek, edukia erakargarriagoa izan dadin.

Egungo prentsa idatziaren eta inguruko tokiko aldizkarien bilakaerari erreparatuta etorri da, hein handi batean, aldaketa egiteko erabakia. Debabarreneko Komunikazio Taldea osatzen dugun hedabideok elkarlanean dihardugu sektoreko joera berriei modu egokiagoan erantzun eta herritarrei euskarazko informazio eskaintza kalitatezkoagoa eta erakargarriagoa eskaini nahian. Bide horretan, elkarlana erraztuko duten hainbat pauso emango ditugu aurten; hauxe izan da horietako bat, eta horrela jarraituko dugu datozen hilabeteotan ere, hedabideon paperezko eta Interneteko ekoizpena hobetzeko urratsak eginez.

Esan beharrik ere ez dago iritzi eta proposamen guztiak ongi etorriak izango direla. Beraz, zurea ere bidal dezakezu berriketan@zuhatza.com helbidera edo helarazi zeuk egoki irizten diozun bidetik. Erredakzioa osatzen dugun lagunok asko eskertuko dizugu.

**Berriketan aldizkariako
erredakzio taldea**

Martxoaren 8an, guk esku-frenoa

Oraingoan dokumental bat da egokiena. Ez! Azkenengoz ere hori antolatu genuen; hitzaldi bat hobe. Zer aspergarria; jendeak nahiago du tertulia. Akaso, kafea badago tarteko, gehiago elkartuko gara...

Marketin enpresa bat dirudi honek. Zuetako askok ere jakingo duzue zein nekeza den norberaren (kasu honetan, taldearen) erabakiak ingurukoen iritzia arabera hartzea. Guk joera honi esku-frenoa jartzea erabaki dugu.

Martxoaren 8an ez dugu manifestaziorik deituko, udalak egingo du hori oraingoan. Erabaki honekin ez gara errebindikaziotik aldentzen, ezta gutxiagorik ere. Inoiz baino gehiago arduratzen gaitu emakumeok bizi dugun egoera zaurgarriak. Eraiketa matxistek, tratu txarrek, erakundeengandik jasotako utzikeriak... emakumeenganako erasoek gora eta gora egiten duten bitartean, ordea, gure jendartean krispazioa eta polarizazioa da nagusi.

Deba-Itziarko Talde Feministatik lanean jarraituko dugu emakumeenganako indarkeriarekin amaitzeko bidean, baina, akaso, orain beste modu batzuetan. Oraindik ez dakigu nola, baina, tira, freno jartzea da lehen pausoa. Tarte bat hartuko dugu gure artean hausnartzeko, eztabaidatzeko eta ditugun zalantzak argitzeko. Taldea sendotzeko bidean, ezinbestekoa baita saretzea eta gure artean elkar zaintzea.

Geuk behintzat horretan dihardugu orain. Beti bezala, guregana hurbiltzeko gonbita ere egin nahi dizuegu, noski. Bitartean, kaleetan ikusiko dugu elkar. Gora gu eta gora borroka feminista!

Deba-Itziarko Talde Feminista

A. Esnaola
P. Echeverria

Hartz klinika Clínica dental

Fermin Calbeton 19-3 ez. EIBAR
943 20 72 17 - 660 422 808
© @pyadent

LABATAI
taberna

GOSARIAK GOIZEKO
06:00 ETATIK AURRERA

PINTXOAK, OGITARTEKOAK
ETA PLATER KONBINATUAK,
EGUN OSOAN ZEHAR



AINARA SEDANO

Trabatuta

Leku geografiko batera kateatua sentitzen dut maiz nire burua eta, era berean, ez naiz nolabait bertako sentitzen.

Ohartzen naiz leku geografiko zehatzak ez duela zerikusirik sentimenduarekin berarekin, zulo sakonago batekin baizik; betidanik zainetan bueltaka daramadan bolatxo batekin. Buelta, eta buelta, eta buelta, eta beti hor. Zirkuitu itxian biraka. Irteerarik gabeko zirkuituan. Irteerarik gabeko zirkuituan???

Tentuz pentsatuz gero, zentzugabekeria dirudi. Sentitzen ditudan gauzek ez baitute ni neu ulertzeko gai naizen zentzurik ere.

Zalantza izan ohi dut lur honetara lotzen nauten lokarri hauek jaioterrian botatuko sustraiak ote diren, kate astunak diren edo, aldiz, libreago egiten nauten hegoak diren, ohituren eta familiaren mandatuak diren, leku ezagunak ematen duen erosotasuna den, halako apustu bati aurre egiteak suposatzen duen erronka den, eta azken honi aurre egiteko behar den adorea...

Aske samar sentitzen naizelako batzuetan alde egiteko, baina, joan arren, bueltatu nahi izaten duelako sarri alde egin duenak. Hau ote da aberria... kanpoa ikusteko gogoia izatea, beste mundu guztia ezagutzea, beste norbait beste nonbaiten izateko aukera bizitzea eta hori guztia bizipenen liburuan behin idazteko aukera izatea, pertsona helduago modura norbere errora bueltatzea.

Ez dut sekula ondorio garbirik ateratzen. Eta, momentuz, hemen trabatuta geratzeko asmotan nago... ez nago batere gaizki!

“Ohartzen naiz leku geografiko zehatzak ez duela zerikusirik sentimenduarekin berarekin, zulo sakonago batekin baizik”



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



Maitena Arrizabalaga Deba
Odontologoa

Kolegiatu zk. 20.000.975

maitena

HORTZ KLINIKA

Tel. 943 83 04 24

Gipuzkoa kalea 28-3ºesk, Zarautz

Errigorak martxoaren 9an abiatuko du udaberriko kanpaina



Bat egin Errigora Balioekin goiburupean egingo da aurten *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpaina. Herritarrek martxoaren 9tik 29ra bitartean egin ahal izango dituzte produktuen eskaerak.

Oliba-olio birjina estra (olio mota gehienak bost litroka), arroz, pasta, lekaleak eta kontserbak (hamabi ontziko sortetan) eskatu ahal izango dira oraingoan; guztia euskaraz etiketatuta joango da, eta ekoizlearen jatorrizko prezioa izango dute produktuek.

Errigoraren webgunea baliatuta (*errigora.eus*) edo telefonoz deituta (848 87 12 23 zenbakira) egin beharko dira eskaera guztiak.

Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da Errigora. Nafarroa hegoalde eta erdialdea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin

nahi du, eremu horretakoak diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanez, "euskaratik, euskararako eta euskaraz". Arduradunek diote gero eta zabalagoa den komunitate batek ematen diola gorputza ekimenari; "ilusioz eta anbizioz ari garen herritar, nekazari, ekoizle, euskaltzale eta kontsumitzaileez osatutako sare anitz batek".

Produktuen dastaketa Deban

Zuhatzaren babesa du Errigorak; hori hala, elkarteko bazkideek produktuak Deban bertan jasotzeko aukera izango dute oraingoan ere.

Gainera, kanpainen eskaintzen diren produktuak bertatik bertara ezagutu eta dastatzeko hitzordua ere antolatu du Zuhatzak. Martxoaren 9an izango da, Kultur Elkartean, 18:30ean; aurrez eman behar da izena (688 84 03 08 telefonoan).



Martxoaren 10ean amaitzen da 'Deba 100 hitzetan' lehiaketara lanak aurkezteko epea

Euskaraz zein gazteleraz parte hartu daitekeen Deba 100 hitzetan literatur lehiaketa jarri dute abian zazpigarrenez Cardenas Fundazioak eta Debako Udalak. Lehiaketan edonork parte hartu ahal izango du eta, gehienez ere, Debarekin lotura duten 100 hitzeko kontakizunak bidali ahal izango dira.

Idatziak paperean edo era digitalean aurkeztu ahal izango dira, eta guztiak turismo bulegoan jasoko dituzte; horretarako azken eguna martxoaren 10a da. Parte hartzaileek gutun-azal handi batean aurkeztu beharko dituzte lanak, kanpoko aldean izengoitia idatzita. "Idazlanaz gain, beste gutun-azal bat sartu beharko da barruan honako datuekin: izenabizenak, helbidea, adina eta telefonoa eta, izanez gero, baita helbide elektronikoa ere".

Euskarazko eta gaztelaniazko kategorian, hiru sari banatuko dituzte. 1.300 euro banatuko dituzte guztira: kategoria bakoitzeke irabazleek 300 euroko saria jasoko dute, bigarren saria esku-ratzen dutenek 200 eurokoa eta saririk gabeko herriko lanik onenek, berriz, 150 eurokoa.

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95

Sokagin kalea 2, behea
20820 DEBA

Nº. 379

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943192 303
urlo@urlosi.net

Debako Udalak 9.200.000 euro inguruko aurrekontu bateratua onartu du



Simon Berasaluze Plazako 1-3 atariak. ERREDAKZIOA

Debako Udalak 9.217.111 euroko aurrekontu bateratua izango du 2023 urtean udalerrriaren kudeaketarako. Iazkoarekin alderatuta, 300.000 euro gehiago izango dituzte ekitaldi berrirako. Kopuru horretatik, zehazki, 8.905.995 euro Debako Udalera bideratuko dituzte, 1.065.500 euro Itziariko Auzo Udalera eta 643.536 euro Deba Musika Patronatura.

Aurrekontua adosteak, baina, etzabaida eragin du udal gobernu taldearen eta oposizioaren artean. Aurrekontua abenduaren 20ko osoko bilkuran onartzea zen asmoa, baina oposizioaren ezezkoa jaso ondoren, ezin izan zen orduan onartu. Debarren Ahotsarekin

aurrekontua onartzeko akordioa ahalbidetu ondoren, otsailaren 16ko ezohiko osoko bilkuran eman zioten onespena, EH Bilduren aldeko botoekin (6), Debarren Ahotsaren abstentzioarekin (4) eta EAJren aurkako botoekin (3). 2022ko aurrekontua luzatzea saihestuta, "udal jarduna normalizatu eta prozedurak azkartu" ahal izango direla azpimarratu dute udal gobernu iturriek.

Zerbitzuak hobetzea helburu

Udal gobernuak kideek nabarmendu dute helburua udal zerbitzuak "hobetzea" izango dela. Bide horretan, iaz Hirigintza Saileko langile taldean egindako inbertsio

ahalegin berezia mantentzeak izan du lehentasuna. Inbertsio nagusiei dagokienean, aurrekontuaren gerakinetik egingo dituztela iragarri dute.

Besteak beste, udaltzaingoaren goitza, Geoparkearena eta turismo bulegoa lekualdatzeko asmoa agertu dute; Simon Berasaluze Plazako 1-3 atarietara eramango dituzte urtea amaitu baino lehen. "Aurrekontuko inbertsiorik potoloena izango da; 300.000 euro inguru inbertituko ditugu. Leku aldaketa horri esker, gainera, beste bi espazio berri irabaziko ditugu. Geoparkea eta turismo bulegoa dauden lokalean, esaterako, ludoteka egiteko asmoa daukagu". Gerakinetik, gainera, Agirre jauregiko entsegu geletan hobekuntzak egitea eta Agirretzeko ur depositua birgaitzea ere aurreikusten dute.

Kultur eta euskara sailetan, berriz, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren eraginez elkarrean dirulaguntzetan egin ziren murrizketak bertan behera laga eta lehengo sailak berreskuratu dira. Horrez gain, ohiko ekintzak eta eragileekin egiten diren hitzarmenak aurreikusi dira.



ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Podologia
- * Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com



GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



M8aren bueltako egitaraua, hilaren 1etik 24ra bitartean

Urtero legez, egitarau berezia prestatu du udaleko Berdintasun batzordeak Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira. Gai ezberdinak hizpide hartuta, askotariko ekitaldiak izango dira aukeran, martxoaren 1ean hasi eta hilaren 24ra bitartean.

Zoru pelbikoari buruzko hitzaldi-tailerrak emango dio hasiera egitarauari, martxoaren 1ean, 18:00etan, Agirre jauregiko Ispiluen gelan. Saio bera Itziariko Burugorri aretoan ere eskainiko dute, martxoaren 16an, 18:00etan.

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, elkarretaratzea egingo da Debako Foruen Plazan, 19:00etan. Mobilizazioaren ondoren, Kanean Kantuz taldeko kideek kantaldia eskainiko dute; 19:30ean abiatuko dira plazatik bertatik.

Menopausiari buruzko hitzaldi-tailerrak ere antolatu dituzte programazioan; Debako Ispiluen gelak hartuko du lehen saioa martxoaren 10ean, 18:00etan, eta Itziarren egingo da bigarrena, martxoaren 24an, 18:00etan.

Halaber, bi hitzordu izango dira martxoaren 12an: batetik, Debako Kontalariak saio berezia egingo dute, 17:30ean, Ispiluen gelan; eta, bestetik, Elbira Zipitria euskaltzale eta hezitzaile aitzindariari buruzko *Elbira* dokumentala proiektatuko da 19:00etan, Kultur Elkartean.

v'Kilimateriaio'

Gainera, bakarrizketa eta batbateko bertsoak uztartzen dituen *Kilimateriaio* aurkeztuko dute Ispiluen gelan martxoaren 19an, 18:00etan. Irati Anda, Oihane Perea eta Iratxe Ibarra bertsolariak izango dira bertan, Kaitin Allenderekin batera; azken horrek sortutako *Klimaxetik klimateriaiora eta buelta* bakarrizketatik jaio den emanaldia eskainiko du laukoteak.



Donostiako Lilatoian talde gisa parte hartzeko deia egin dute herrian, elkarlanean

Martxoaren 5ean milaka eta milaka emakume elkartuko dira Donostiako 33. Lilatoian parte hartzeko. Beste urte batzuetan bezala, asko eta asko izango dira aurten ere korrika egitera joango diren herritarrak eta, horren harira, lasterketan Debako talde bakar gisa parte hartzeko izen-ematea zabaldu dute Debako Udalak, Gaztelekuak eta Iruleak Emakume Pilotariak taldeak elkarlanean.

Otsailaren 7an bukatu zen herriko taldean izena emateko epea, baina Lilatoian antolatzaileek gogorarazi dute lasterketan parte hartzeko izena norbere kabuz ere eman daitekeela; kasu horretan, lilaton.es/eu atarira jo beharko dute interesdunek. Otsailaren 26an gauerdian itxiko da izen-ematea.

Entrenamendu saioak

Donostiako lasterketara begira, gainera, bi entrenamendu saio ere antolatu dituzte Deban, eta edonork parte hartzeko modukoak direla azaldu dute antolatzaileek; "Ez badaukazu norekin entrenatu, zatoz gurekin!" mezua zabaldu dute azken egunotan.

Otsailaren 14an egin zuten lehen entrenamendua, eta martxoaren 1erako (asteazkenerako) deituta dago bigarren saioa. 19:10ean batuko dira, zumardiko kioskoan.



IBON URKIA

Tipula-malkogintzan

Aspaldidanik iruditu izan zait deigarria zein bide ezberdina erabili ohi duten euskarak eta gaztelerak gezurrezko malkoei erreferentzia egiteko. Erromatarren eskutik iritsi omen zitzaigun tipula Euskal Herrira. Izan ere, latinari zor diogu euskaldunok barazki malko-eragilearen izena. Hala kontuak, negar faltsutan diharduenari tipula-malkoak isurtzen ari dela esaten zaio euskaraz.

Gaztelerak, ordea, oso bestelako adiera darabil malkook benetakoak ez direnean. Ez dakit gaztelerazko lehen hitzak agertu ziren Errioxako monasterioaren inguruan krokodilorik biziko ote zen garaiotan. Ebro ibaia ez zegoen bertatik hain urruti...

Kontuak kontu, gaztelerak krokodiloaren malkoei erreparatzen die sasi negar-malkoak isurtzea aditzera emateko. Adituen esanetan, krokodiloak malkoak isurtzen ditu harrapakina irensten ari denean, baina, diotenez, ez omen da hortz artean darabilen ahuntza edo dena delakoa goxoa baino goxoagoa dagoela espresatzen ari delako, haren begiak hidratatzeko baizik. Ez dario, beraz, faltsukeriarik. Biziraupen hutsa da, ahuntz gaixoaren zoritxarrerako.

Deban Soziolinguistika Klusterrak neurtu berri du zenbat erabiltzen den euskara kalean. Emaitei erreparatuz, ez dakit ez ote den gero eta nabarmenagoa krokodiloaren itzala tipulen baratzean.

“Ez dakit gaztelerazko lehen hitzak agertu ziren Errioxako monasterioaren inguruan krokodilorik biziko ote zen garaiotan”

**AHOLKULARITZA
LIDERRA,
TOKIKO
ARIMAREKIN**

**ZERGA, LAN ETA
KONTABILITATE
AHOLKULARITZA**

ONDARRROA - 94 483 29 75
ERMLA - 94 317 44 35
Eta beste herri batzuetan.
www.torrealday.es

Berriketari.eus

albistek iritziak agenda mediateka

Lian muralgilearen Ondarroako artelana, munduko hiru onenen artean

Street Art Cities atariaren ekimenez, bozketa egin dute 2022an munduan egin diren ehun muralik onenen artean eta hirugarren postua lortu du Lian Monserrate artistak, Ondarroako Kamiñazpi auzoan egindako artelanarekin. Berak egindako hiru mural daude Deban.

Street Art Cities atariaren erabiltzaileek hartu dute erabakia: urtarrilaren hasieran iazko ehun muralik onenen zerrenda argitaratu zuten webgunean, eta, hilabete amaieran, bozketa bidez, herritarrek ebatzi zuten Ondarroakoa dela hirugarren onena. Herbehereetan dago, Tilburgen, bozketaren irabazlea eta Argentinan, Buenos Airesen, berriz, bigarrena.

Joan den udaberrian egin zuen Kamiñazpiko murala Lianek (AEB, 1981); esku batzuk ageri dira bertan, sare bat konpontzen, eta mendeetan Ondarroan emakume saregileek aurrera eramandako jarduera garrantzitsuari omenaldia egitea du helburu.

Egun Atxondon bizi den artistarentzat ez da berria munduko ehun onenen zerrendan sartzea. 2019an ere lortu zuen, Leitzako (Nafarroa) Atekabeltzen egindako muralarekin; bozketa bukatuta, 45. postua irabazi zuen.

Begirada mugimendu sozialetan

Ondarroan eta Leitzan ez ezik, munduko eta Euskal Herriko beste hainbat txokotan ere aurki daitezke Murales Lianen sinadura, hala nola Bilbon, Durangon, Sorluzen eta Deban. Mugimendu sozialekin lotura estua du autoreak, eta horren isla dira haren lanak.

Eragile ezberdinen enkarguz sortu ditu Debako kaleetan, espazio publikoan, ikusgai ditugun hiru muralak. Euskal Jolas parean dago bat (*Deba herri anitza* goiburupean sortua); Maxpen bigarrena, *Bixok maitte degun jolasa* mezuarekin; eta Gaztetxeko hormetako batean hirugarrena, emakume boxeolariarena.



Ondarroako Kamiñazpi auzoko murala. STREETART CITIES(TIM)



Proiektua sendotze aldera, herritarren babesa eskatu du Kultur Elkarteak



Debako Kultur Elkarteak orain urtebete inguru, iazko udaberrian, heldu zion bazkide kanpainari, baina oraindik ere herriaren babesa handitzeko erronkarekin jarraitzen du lanean. "Bazkide kopurua bikoiztu egin dugu urtebetean eta 180 bazkide gara gaur egun. Pozik gaude lortutakoarekin, baina argi daukagu, era berean, bide hau jorratzen eta herritarren babesa indartzeko helburuz lan egiten segi beharra daukagula", adierazi dute zuzendaritzako kideek.

Hori hala, proiektuarekin bat egiteko deia egin diete beste behin ere herritarrei. Euren esanetan, bazkide egiten direnek zuzenean parte hartu eta lagundu ahal izango dute "elkartearen erreferentzialtasuna handitzen, etorkizuneko kulturgune proiektuari forma emango dion sarea osatzen eta egun eskuen artean ditugun jardueren irismena handitzen".

Kultur Elkartean antolatzen diren ekitaldietan ez ezik, labur.eus/kulturelkartea estekan ere eman dezakete izena bazkide izan nahi dutenek; 12 euroan eskaintzen dute urteko kuota.

KulturEkin, Udalarekin elkarlanean

Iazko dinamikari utsita, aurten ere hainbat emanaldiz osatutako KulturEkin programazioa prestatu du elkarteak; Mikel Urdangarinen kontzertua izan zen urtarrilean, *Meteo* ikuskizuna eskainiko dute otsailaren 24an, Xahu taldearen kontzertua eta jam session irekia izango dira martxoaren 31n, eta Liburuaren Nazioarteko Egunaren bueltako ekitaldiak eta Ruper Ordorikaren emanaldia izango dira apirilaren 22an.



DEBA | Bulego berria

Maxpe kalea, 7 behea ☎ 943 19 21 06

EIBAR | Zezenbide, 4 behea ☎ 943 20 70 02

📷 asesoriagestilan

🌐 gestilan.es

✉ gestilan@gestilan.es

“Iragarpenaren poetikatik tiraka, musikaren eta irudiaren bitartez bidaia bat proposatzen dugu”

MIREN NARBAIZA • Musikaria



Miren Narbaizaren ahotsa eta musika, eta Itziar Garaluze argazkilari eta artista bisualaren irudiak uztartzen dituen 'Meteo' ikuskizuna izango da otsailaren 24an, 22:00etan, Kultur Elkartearen. Narbaizaren esanetan, "finean, eguraldiaren eta klimatologiaren gaineko hausnarketa bat da; iragarpenaren poetikatik tiraka, musikaren eta irudiaren bitartez bidaia bat proposatzen dugu bertan".

Gasteizko HAZ espaziorako orain bi urte enkargatutako kontzertu batean ezagutu zuten elkar Miren Narbaizak (Eibar, 1986) eta Itziar Garaluzeak (Gasteiz, 1986), eta hura izan omen zen orain eskuen artean daukaten *Meteo* proiektu berriaren abiapuntua. "Orduko hura kontzertu arrunt batetik hurbilago egon zen, agian, nahiz eta ate bat zabaldu genion, konturatu gabe, esperimentazioari", dio Narbaizak. Harrezkero, beste emanaldi batzuk egin dituzte, eta beste norabide bat hartu. Lan berria Deban aurkeztuko dute, KulturEkin egitarauaren baitan. Emanaldiaz ez ezik, orain arte musikagintzan egindako ibilbideaz eta aurrera begirako erronkez ere aritu gara eibartarrarekin.

Nolakoa izan da 'Meteo'-ren sorkuntza prozesua?

Duela bi urte elkar ezagutu genuenean, nik nire kantuak nituen eta Itziar izan zen nigana egokitu zena. Kantu bakoitzak zer iradokitzen zidan azaldu nion, sentsazioak, koloreak, sentimenduak eta abar, eta hortik bere interpretazioa sortu zuen. Esan bezala, momentu batean ohartu ginen ordurako ez zela kontzertu arrunt bat, eta hausnarketa batean sartu ginen. Garaion Sormen Gunean egin genuen egonaldiak asko lagundu digu *Meteo*-

ri forma emateko orduan, eta irudia zein musikaren gainekoak elkarrekin pentsatu ditugu: zein irudi, bideo sartu nahi genituen ikusi, batetik; eta zein musika, giro sortu nahi genuen aztertu, bestetik. Han abiapuntu berria finkatu genuen eta hori biribiltzen saiatu gara. **Zer aurkituko du ikus-entzuleak Kultur Elkartearen? Bi begirada edo ikuspuntu proposamen bakarrean?** Meteorologian, eguraldian oinarritzen den ikuskizun bat da *Meteo*. Bi hitzetan azaltzeko zaila da, baina, finean, eguraldiak gudan duen eraginaren eta guk ere planetan eta eguraldian eragiten dugunaren gainean pentsatzera garamatza. Eguraldi iragarpenak nolabaiteko parentesi bat dira eguneroko albistegiaren baitan. Eta nahiz eta bere horretan informazio soila dirudien, pertsona bakoitzak ditugun interesen arabera desberdin jasotzen dugun informazio bat da. Ertz asko ditu gaiak, eta guk geuk ere egunean-egunean ikuspuntu berriak ikusten dizkiogu.

Inprobisaziorako tarterik lagatzen al du ikuskizunak?

Bai Itziarrek bai nik zuzenean egiten dugu bakoitzak berea. Eta tempoak musikan zein bisualetan elkarrekin joan daitezen saiatzen gara. Gidoiaren gainean, beraz, badago inprobisazioa eta halaxe izatea nahi dugu, momentuaren esku uztea sortuko dena.

Proiektua jendaurrean aurkezteko emanaldirik egin al duzue aurrez?

Gasteizko HAZ espazioan egin genuen lehenengo elkarlana, baina hau gure hirugarren emanaldia izango da *Meteo* bezala. Hala ere, Debakoa izango da gidoi berri honekin egingo dugun lehenengoa.

Gustuko al duzu diziplina artistikoen arteko fusioa?

Elkarri eragitea beti da positiboa. Niri irudia, ikus-entzunezkoa asko gustatzen zait, eta Itziar oso musikazalea da. Aitzakia polita da ondokoarena hobeto ezagutu eta unibertso eta egiteko modu berrietan murgiltzeko. Gero kodigoak agian ulertu egin behar dira, teknika eta abar... Baina uste dut beste leku batzuetara iristeko aukera ona dela. Era berean, elkarlanean funtzionatzea ere aberasgarria da.

Itziarren izan zinen abenduan, baina 'Mice' proiektuarekin. Ba al dute loturarik 'Mice'-k eta 'Meteo'-k?

Musika nire esku dagoenez, baietz pentsatzen dut, badutela lotura, halabeharrez. Baina oinarrian proposamenak diferenteak dira. Bata zuzeneko kontzertu bat da, sei musikari disko bat aurkezten. Bestea, *Meteo*, esperimentalagoa dela esango nuke, ez hain gauza zehatza. Dena dela, bietan bidaiatzea gustuko dut, eta biak dira bidaiak bere modura.

2017an abiatu zenuen 'Mice' proiektua eta hirugarren diskoa kaleratu zenuen iaz, 'Lautada'. Azkenaldian lan berria aurkezten ibili zara zuzenekoetan. Pozik?

Disko berriarekin oso pozik gabiltza, aurrelan handia eskatu duen lan bat izan da, bi urteko prozesua. Eta jendeak esan digu igartzen dela dedikazioa eta bilaketa diskoa entzutean. Zuzenekoetan ere asko ari gara gozatzen, talde polita osatu dugu, musikari eta lagun talde ederra dugu. Ezin kexatu!

Urte batzuk daramatzazu musikagintzan eta estilo askotariko proiektu edota taldeetan ibili zara. Zer nolako eboluzioa izan du Miren Narbaizak artista gisa?

Zaila zait erantzutea... Napoka Iriarekin hasi ginenean gaztetxoak ginen eta agian inuzenteagoak ere bai. Urteekin musika nire ogibide ere bilakatu da eta dena ez da hain gozoa, noski. Baina polita da atzera begiratzea



Miren Narbaiz musikari eibartarra. ITZIAR BASTARRIKA

“Polita da atzera begiratzea eta muturra zenbat kontutan sartu duzun ikustea. Eta, onena, beste hainbat kontu sortzeko grina ere sentitzea”

eta muturra zenbat kontutan sartu duzun ikustea. Eta, onena, beste hainbat kontu sortzeko grina ere sentitzea.

Atzera begira jarri zaitugu eta aurrera begira ipintzea dagokigu orain. Proiektu edo erronka berririk bai eskuen artean?

Momentu honetan *Mice*-ren diskoa aurkezten ari gara eta horrela izango da denbora batez, ahalik eta gehien jotzea da asmoa, gozatzea eta jarraitzea. Azken urteetako beste proiektu garrantzitsu bat Gakobeltz Hit Faktoria izan da. Joseba Balezenak eta biok Duranan abiatu dugun grabazio eta ekoizpenerako espazioa da, gure proiektuak lantzeko eta ingurukoena aurrera eramateko lantegia. Finean, musikarekin gozatzen jarraitzen badugu, pozik!

Debarrena osora zabaldu dute Zaporeak elkarteari laguntzeko erronka

Orain dela bost urte Ermuko eta Eibarko sukaldari batzuek hasitako erronka eskualde osora zabalduko dute aurten eta, horrela, Debarreneko herri guztietan egongo da Zaporeak elkarteak Greziako Lesbos uhartean dauden errefuxiatuen alde egiten duen lan solidarioan laguntzeko aukera. Gainera, erronka hasi aurreko egunetan, elikagaiak bilduko dituzte eta rifak erosteko aukera egongo da.

Informazio gehiago
Zaporeaken webgunean:



Zaporeak elkarteak 1.600 otordu ematen ditu egunero Lesbos uharteko errefuxiatuen esparruan eta, horretarako, erakundeen aldetik jasotzen duen laguntzaz gain, herritarren ekarpenak berebizikoak dira. Zaporeak proiektua hainbat sukaldariren eskutik jarri zen martxan, eta eskualdean sukaldari solidarioak ditugula-eta, 2019an ekimen berezia abiatu zuten Ermuan eta Eibarren errefuxiatuei laguntzeko: “Baietz bakoitzak bere herrian 1.000 kilo janari bildu”. Esan eta egin, eta, gainera, rifak saldu zituzten eta paella erraldoia egin zen Ermuan. 4.000 euro inguru biltzea lortu zuten.

Herritarren erantzun ona ikusita, ekimena indarra hartzen joan da eta jasotako laguntza eta elikagai kopurua ere igotzen joan da urtero. Iaz, 6.200 euro bildu zituzten; aurten, kopuru hori gainditzea da erronka. Horretarako, hiru aukera ematen dituzte ekimenaren sustatzaileek: rifak erostea, elikagaiak

ematea eta martxoaren 25ean Ermuan egingo den ekimenean parte hartzea.

Rifak salgai

Rifak salgai jarri dituzte dagoeneko, euro batean, eta irabazleek, eskualdeko jatetxe batean afaria irabazteaz gain, Eibarko Artisten Elkarteko kideek emandako arte-lan bana eramango dute etxera. Afariak Ermuko Amatxi, Sagarra eta Mendiolan; Eibarko Casino, Kontent eta Baratzen; Elgoibarko Belaustegin; eta Itziarko Salegi jatetxeetan emango dira. Gainera, Eusko Label eta KMO produktuez osatutako otarra ere zozkatuko dute.

Janari-bilketa

Zaporeaki laguntzeko beste modu bat elikagaiak ematea da. Horrela, martxoaren 20tik 24ra, Debarreneko herri bakoitzean elikagai jakin bat jasoko dute, lekaleak batik bat. “Erraz egosten diren elikagaiak batzen ditugu, jende



Zaporeak elkarteari laguntzeko erronka antolatu eta laguntza eskaini duen jendea. SILBIA HERNANDEZ

askori eman behar baitzaio jaten”, diote ekimenaren antolatzaileek.

Ermuan, Sorraluzen eta Deban arroz luzea bilduko dute, Mallabian eta Mendaron hodi erako makarroia, Eibarren dilista pardina, Elgoibarren garbantzuz pedrosillanoa eta Mutrikun, berritasun bezala, arrain-kontserbak.

Oraindik ez dute zehaztu herri bakoitzeko elikagaiak zein tokitan jasoko dituzten, martxoaren hasieran zehaztuko baitituzte bilketa lekuak.

Tuper solidarioa

Erronka honekin hasi zirenetik gertatu ohi den bezala, tuper solidarioak banatzen emango diote amaiera ekimenari eta aurten Ermuan egingo da ekintza, martxoaren 25ean. “Ekimen hau garrantzitsua da, errefuxiatu esparruetan zer jaten duten ikusteko balio duela. Ume askok galdetzen dute ia zer gertatzen ari den esparruetan”, azaltzen dute antolatzaileek. Izan ere, tuperrak errefuxiatu esparrue-

tan banatzen diren antzekoak dira. Gainera, errefuxiatuen egoera hobeto ezagutzeko, Lesbosen gertatzen ari den errealitatea erakutsiko dute Ermuko kaleetan jarriko dituzten bideo batzuen bitartez.

Bazkide bila

Debabarrean egingo den ekintza hau garrantzitsua da Zaporeak-entzat, baina edozein laguntza da gutxi, eta elkarteari laguntzeko bazkide berrien bila dabilta. Beraz, kanpaina abiatu dute asmo horrekin. Bakoitzak nahi edo ahal duen kopuruarekin lagundu dezakeela nabarmendu dute, eta aportazio guztiak ongi etorriak izango dira. Gainera, euro baten truke bazkari duin bat eman dezaketela gogorarazi nahi diote jendeari.

Bazkide egiteko bi aukera daude: banku transferentzia bitartez, aldizkako transferentzia egiteko agindua emanda (ES14 2095 5092 00 9115250322 edo ES71 3035 0103 88 1030035880), edo, bestela, zaporeak.eus webgunearen bitartez.

Eskualdeko herri bakoitzean elikagai jakin bat jasoko dute martxoaren 20tik 24ra

Martxoaren 25ean tuper solidarioak banatuko dira Ermuan. Gainera, afariak zozkatuko dira rifen bitartez

“Heriotza tasarik handiena duen kiroletako bat da urpeko arrantza, eta jendea ez da horretaz jabetzen”

IKER AGIRREZABALA ARANBURU • Muturreko urpeko arrantzalea



Lanbidez, ur gezatan ibiltzen da Iker Agirrezabala Aranburu (Deba, 1976); Mendaroko araztegiko mantentze lanez arduratzen da, baina itsasoko gazitasuna gehiago maite du. Urpeko arrantzalea da afizioz eta Real Sociedad taldeko urpeko ekintzen ataleko kirol klubeko kidea ere bada. Era berean, Euskadiko Angulero Elkarteko bozeramailea eta Deba ibaiko ordezkaria da gaur egun.

Umetan hasizen hodia ahoan eta fusila eskuan ibiltzen, eta ordutik "bere bizitzako ardatz nagusietako bat" bihurtu da. Abenturazale grinatsua ere bada eta, bere pasioarekin uztartuta, hamaika bidaia egiteko aukera izan du; bidaia horiek hizpide hartuta, hitzaldiak ere ematen hasi da.

Bistan da oso harreman berezia daukazula itsasoarekin. Nola ezagutu zenuen urpeko arrantza?

Deban bizi garenok beti izan dugu itsasoa begien aurrean. Txikitan hondartzara joaten ginenean, ni arroketa joaten nintzen karramarroak harrapatzen. Egun batean betaurreko batzuk hartu eta burua putzu batean sartu nuen arte... Burua uretan sartu eta beste mundu bat ikusteak txundituta utzi ninduen.

Hortaz, betidanik izan duzu gustuko?

Futbola ez nuen batere gustuko. Animaliak, itsasoa, arrainak, arrantza... horiek guztiak, ordea, nire benetako pasioa ziren txiki-txikitatik.

Zein duzu urpean ibiltzeko lekurik preziatuena?

Eatik Hondarribirainoko tartean ibiltzen naiz, eta nire lekurik gustukoena Jaizkibelgo kostaldea da.

Euskal Herriko kostalderik basati eta aberatsena da arrantzarako, batez ere negu partean. Lupi eta muxarren paradisua deitzen diogu, nahiz eta urtetik urtera bertan dagoen kopurua ere txikitzen doan.

Beti murgiltzen al zara ur sakonetan?

Neguan ez naiz oso sakon ibiltzen, asko jota 10 metroko sakonerara murgiltzen naiz. Muxarrak eta lupiak bezalako neguko arrainak itsasertzean harrapatzen ditugu, olatuak apurtzen diren lekuan. Udaran, ordea, beste arrain mota batzuk bilatzen ditut. Urraburua edo txelba hortzandia, esaterako, itxarote arrantza deritzon teknika erabilia arrantzatzen ditut, 15-25 metroko sakoneran.

Zenbat metroko sakoneran ibiltzen zara gehienez?

Sakoneko arrantzan nabilenean, normalean, 20-25 metroko sakoneran ibiltzen naiz. Erbestean, baina, 30 metroko sakonerara ere iritsi izan naiz; halako toki batean zaudenean merezi du halako ahalegina egitea.

Urpeko arrantzan aritzeko ezinbestekoa da apnea maila ona izatea. Urpean zaudenean, baina, nola jakiten duzu zenbat denbora daukazu bertan egoteko?

Apnea neurtzen duen erloju bat daramat beti soinean.



Iker Agirrezabala Sorginetxe parean. ERREDAKZIOA

Erloju horrek berak kontrolatzen dizu ur azpian egin dezakezun tartea eta beharrezko errekupeziarako denbora. Horrez gain, zenbat jaitsiera egin dituzun eta zenbat metroko sakoneran ere neurtzen du. Norberak ezagutzen du bere gorputza ondoen eta, horren arabera, hurrengo jaitsierari ekin aurretik errekupeziarazko zenbat denbora behar dugun jakiteko gai ere bagara.

Nola prestatzen dituzu urperatze saioak?

Erritmo lasai eta konstante bat eraman behar da, eta burua beti hotz, sakoneran gabiltzanean batez ere.

Zein arrantza teknika gustatzen zaizu gehien?

Gehien gustatzen zaidan teknika itxarote arrantza deritzona da. Arnasa sakon hartu, urperatu, harri baten atzean ezkutatu eta hor geldi-geldi egon behar duzu pare bat minutuz, arraina zuregana etorri arte. Egia esan, norberarengana datorren arrain handi batekin begirada gurutzatzeak ez dauka preziorik.

Zein duzu arrantzan aritzeko sasoirik gustukoena?

Udaberria, zalantzarik gabe. Martxoan hasi eta ekain bukaerara arteko garai horretan neguko arrainak eta udakoak nahasten dira eta orduan egiten ditut saiorik politenak.

“Ordu erdi eman nuen Ozeano Barearen erdian bi metro eta erdiko bela arrain bati lotuta, zer gertatuko zen jakin gabe”

Zein da orain arte egin duzun harrapaketarik handiena?

Galdera zaila, benetan. Kanpoko itsasoetan arrantzatutako arrainik azpimarragarrienak 60 kiloko meroa, 40 kiloko seriola, 35 kiloko txelba arrunta eta 2,5 metroko bela arraina dira. Hemengo itsasoko arrainei dagokienean, 10,6 kiloko lupia, 30 kiloko burbina eta 6 kiloko urraturua dira arrantzatu ditudan handienak.

Eta zein izan da gehien kostatu zaizuna?

Zalantzarik gabe, Nikaraguan harrapatu nuen 2,5 metroko bela arraina. Tiroz jo ostean, ordu erdiz eraman ninduen itsasoan barrena tiraka. Nekatu zenean, itsasontzia nire bila etorri zen eta, beste fusil batekin



2,5 metroko bela arrain batekin, Nikaraguan. IKERAGIRREZABALA

beste tiro bat jo ondoren, itsasontzi barrura sartzea lortu genuen. Beti gogoratuko dudan momentua izan zen; ordu erdi eman nuen Ozeano Barearen erdian arrain bati lotuta, zer gertatuko zen jakin gabe. Batetik, arrainak ihes egiten bazidan inork ez zidala sinetsiko uste nuen, eta, bestetik, arrainak buelta emateko eta haren ezpatarekiko beldurrez ere banengoen.

Hortaz, erabiltzen duzuen materialak ere garrantzi handia du, ezta?

Kirol guztietan bezala, urpeko arrantzarako materiala ere izugarri hobetu dute. Neoprenozko jantziak askoz bigunagoak eta beroagoak dira, hegatsak karbonozkoak, fusilak egurrezkoak... izugarri hobetu da dena.

Hainbeste urteko esperientzia izanda, zein izan da uretan ikusi duzun gauzarik liluragarriena?

Cortez itsasoan urperatzearen nengoen batean, nire azpian puntu txuri pila bat zituen zerbait nabaritu nuen; izugarritzko marrazo balea zen, 12 metro ingurukoa. Azkar uretaratu nintzen eta, bizkarrean duen hegalaria helduta, harekin igeri egiteko aukera izan nuen. Beste batean, ordea, balea gris batekin egin nuen topo, baita marrazoekin ere.

Kirol arriskutsua ere bada...

Heriotza tasarik handiena duen kiroletako bat da urpeko arrantza, eta jendea ez da horretaz jabetzen.

“30 urte baino gehiago daramatzat kirol hau praktikatzen, eta momentu latz asko ere izan ditut”

“Telebistarako zenbait erreportaje egin izan ditut eta jendea bideo horiekin asko txunditzen da”

Hiru lagun galdu ditut itsasoan eta kezka hori beti eramango dut barruan. Noizean behin istripuak gertatzen dira eta, egia esan, inor ez dago arriskuz kanpo. Azkenean, lortutako esperientziari esker, norbere gorputza hobeto ezagutzeko gai gara eta horrek norbere mugak non dauden erakusten digu; nire ustez, muga horiek alde handiarekin errespetatzea da onena.

Zeintzuk dira ur azpian bizi izan dituzun unerik atseginenak?

Semearrekin arrantzara joaten hasi naiz. Hain gaztea izanda urpean zer ondo moldatzen den ikustea asko atsegin dut.

Eta, alderantziz, estualdi gogorrenak?

30 urte baino gehiago daramatzat kirol hau praktikatzen, eta momentu latz asko ere izan ditut. Ez dut gezurrik esango, tartean momentu oso-oso latzen bat ere bizi izan dut; egia esan, inor ez dago arriskutik kanpo.

Euskal Herriko mugetatik harago ere aritu izan zara arrantzaz. Zein leku interesgarritan egon zara?

Leku askotan egon naiz, besteak beste, Marokon, Grezian, Azore irletan, Costa Rican, Nikaraguan, Mexikon eta Madagaskarren.

Zer nolako esperientziak izan dira?

Ur azpian zein lehorrean, leku guztiek dute beren xarma. Betiko lagun batzuekin joaten naiz eta, batez



Arrantzale debarra bi mero erraldoirekin. IKERAGIRREZABALA

ere, herrialde haietako jendea eta kultura desberdinak azpimarratuko nituzke.

Zer ikasi duzu bertan?

Turistikoa ez den bidaia bat bizitzan egin daitekeen gauzarik onenetakoa dela; luxuetatik urrun eta bertako jende xumearekin nahastuta. Nire ustez, hori da benetako bidaia bat egitea.

Bidaia horietako batean ateratako argazki batean ia zu besteko arrainekin ikusi zaitugu. Nola moldatzen zara halako arrain handiak arrantzatzen?

Arrain erraldoientzako fusil indartsuagoak eta hagaxka bereziak erabiltzen ditut. Arrain erraldoi horiek arrantzatzeko teknika, ordea, berdina da. Hori bai, ez du balio edonon jotzeak. Lehen tiroan hil ezean, hobe ez botatzea, oso arrisksua baita.

Nola antolatzen dituzu bidaia horiek? Materiala eramateko arazorik ez duzue izaten, adibidez?

Beharrezko material guztia guk eramaten dugu, izan ere, joaten garen leku haietako askotan ez dago material egokirik erosteko aukerarik ere. Materiala ondo bilduta eramanez gero, ez da arazorik egoten.

Bidaia asko egin dituzu han-hemenka. Zein izan da zure gogokoena?

Denak ditut gogoko, ezingo nuke bat bera ere baztertu. Jende asko ezagutu eta momentu zoragarriak bizitzeko

aukera izan dut, baina leku bat aukeratzekotan Cortez itsasoan dagoen San Jose uhartea aukeratuko nuke; hura da gure bihotzeko paradisu.

Zein izango da zure hurrengo geralekua?

Hurrengo bidaia urrian egingo dugu. Kalifornia Beherera joango gara, Ozeano Bare aldera, mero erraldoi eta marlinen bat harrapatzeko gogoz. Marlina da oraindik ere arrantzatzeko dudatan arrain desiatuenetako bat.

Bidaia horiek guztiak hizpide hartuta, hitzaldiak ere eman izan dituzu. Zer moduzkoa izan da esperientzia?

Jendea zerekin harritzen da gehien?

Kontu-kontari aritzeko beti eduki dut erraztasuna, ez naiz batere lotsatia. Telebistarako zenbait erreportaje egin izan ditut, eta jendea bideo horiekin asko txunditzen da. Kamera fusilean jarrita eramaten dut eta ikusleak arrantzalearen azalean jartzen dira zuzenean.

Urpeko arrantza txapelketetan ere parte hartzen duzu.

Zein da orain arte lortu duzun emaitzarik aipagarriena?

Realak urpeko jardueretako taldea dauka eta euren izenean lehiatzen naiz. Azken bi urteotan Gipuzkoako txapelkunorde izendatu naute eta Euskadiko txapelketetan lehen hamarren artean sailkatu naiz. Emaitza onak baldin badira ere, txapelketak ez ditut oso gogoan hartzen.

Jo Ta Su Boxing, kolpez kolpe, bidean aurrera

2009ko uztailean sortu zen Jo Ta Su Boxing Debako kirol elkarte eta 2020ko udaberrian ekin zion bere kirol-jarduerari. Geroztik, "gauza asko" pasa dira orain arteko ibilbidean; entrenamenduak, esate baterako, kiroldegian egiten dituzte gaur egun, eta ez Gaztetxean, eta kirol elkarte bezala ofizialki lehiatu ahal izateko Euskadiko Boxeo Federazioan ere sartu da taldea; ringean hiru kide lehiatzen dira gaur-gaurkoz norgehiagokan, eta bidean doa laugarrena. Boxeo sustatzen jarraitzeko erronkari helduta, taldera batzeko deia ere egin diete berriro herritarrei.

Informazio gehiago
elkartearen webgunean:



Genero, adin, jatorri eta bizileku ezberdinetako hogeita hamar bat kidek osatzen dute gaur egun Jo Ta Su Boxing. Bidea egiten hasi orduko nabarmendu zuten boxeoaren bueltan "talde anitz bezain aberatsa" osatu nahi zutela herrian, eta aniztasunak kirol elkartearen nortasunaren oinarri izaten jarraitzen du oraindik ere.

Gari Sillero elkarteko ordezkariak azaldu bezala, "garai hauetan ohikoa den bezala, arrazoi ezberdinak medio, elkarteko partaideak aldatuz doaz; batzuk joan egin dira eta beste batzuk etorri. Eskualdeko herrietatik gero eta jende gehiago dator, adibidez. Emakumeei dago kienean, berriz, duela hilabete batzuk kopuruak behera egin zuen. Kontrara, adinean gora doan gero eta jende gehiago animatu da, eta 16-65 urte bitarteko jendea dabil uneotan. Klubean denbora zeraman batek edo bestek utzi egin du eta denboraldi berriarekin sartu zirenetako asko gelditu egin dira".



Debako Gazte Asanbladaren babesean, Jo Ta Su Boxing-ek Gaztetxean aurkitu zuen, hasiera batean, bere kirol-jarduera aurrera eramateko lekua. Baina, boxeolariak trebatzen jarraitzeko eta elkartearen bilakaeran aurrera egin ahal izateko, espazio fisiko handiagoa eta egokiagoa lortzea izan zuten laster helburu. Orain, kiroldegiko instalazioetan aritzen dira.

"Espazio aldaketa aurrerapauso bat izan da, zalantzarik gabe", dio Manex Astigarraga elkarteko kideak. "Ikusgarritasuna eman digu, eta lekua handiagoa da... baina, hala ere, baditu hobetu daitezkeen alderdiak", gaineratu du; "klaseak emateko orduan inguruko zatakat zailtasunak dakartza, adibidez".

Instalazioak, hankamotz

Sillero berak ere aipatu du kirol-instalazio egokien beharra. "Lekua bera ez dago honetarako pentsatuta; materiala kentzen eta ipintzen ibili behar izaten gara eta saio bakoitzean ordu eta erdi



Hogeita hamar bat kidek osatzen dute gaur egun Jo Ta Su Boxing Debako boxeo elkartea. ANDERSALEGI

inguruko lana eskatzen du honek. Ez dago ispilurik eta, noski, ringik ere ez. Azken hori oso garrantzitsua da lehiatzeari begira, bai distantzia eta sentsazioetara ohitzeko, bai borrokaldi baten benetako baldintzetan entrenatzeko".

Bestalde, entrenamenduen ordutegietara moldatzeko izan ohi dituzten zailtasunak ere aipatu dituzte; "jende guztia ezin da ordutegietara egokitu. Ahal izanez gero, hobe litzateke mailaren arabera talde bat baino gehiago bereiztea".

Denboraldiko erronkak

Zailtasunak zailtasun, bidean aurrera doa kluba. Urteotan egindako urrats esanguratsuen artean, besteak beste, kirol elkarte gisa ofizialki lehiatzeko Euskadiko Boxeo Federazioan sartu izana nabarmendu dute ordezkariak.

Bost kide daude, gaur-gaurkoz, klubean federatuta: entrenatzaile bat eta lau boxeolari. Azken horietatik hiru ringean lehiatzen dira, eta laugarrena bidean doa.

Semiprofesional gisa aritzen dira guztiak: Pily Flores superarinean (60-63 kg), Unai Arizaga erdiastunean (75-80 kg), eta Cheikh Mbengue astunean (86-92 kg).

Otsailaren 25ean, Arizagak borrokaldia izango du Arrasateko udal pilotalekuan eta martxoaren amaieran Euskadiko txapelketako norgehiagokan izango da Flores.

Silleroren esanetan, aurtengo denboraldian emaitza onak lortzea du erronka kirol elkarteak; "batetik, Arizagak lehen garaipenak lor ditzala, eta, bestetik, Flores Euskadiko txapelketan gutxienez azpitxapeldun izan dadila nahi genuke. Bestalde, interesgarria litzateke beste federatuekin *interklub* ezberdinak egitea ere, euren burua proban jarri eta esperientzia hartuz joateko".

Halaber, boxeora jende gehiago hurbiltzea ere nahiko lukete, eta probatzera animatzeko deia egin diete herritarrei. Entrenamenduak astearte eta ostegunetan izaten dira, 19:00etatik 20:30era.

"Espazio aldaketa aurrerapauso bat izanda, zalantzarik gabe, baina baditu hobetu daitezkeen alderdiak"

"Kirol elkarte bezala, aurtengo denboraldian emaitza onak lortzea litzateke erronka"

Irudimena eta umorea nagusi, mozorro festan

Inauterietako ospakizunek kolore biziz jantzi dute otsaila aurten; Kaldereroak izan ziren herrira iristen lehenengoak, hilaren 11n, eta haiek iragarritako mozorro festa nagusia lehertu zen gero, astebetera. Eguraldia lagun, irudimena eta jai giroa izan dira nagusi beste behin ere. Eskerrik asko zuen argazkiak bidaliz bilduma osatzen lagundu duzuen herritar guzti-guztiei.

Argazki gehiago:





24 ARGAZKI GALERIA





Itziarren banatu da Gure Eskuren Tripontzia zozketaren sari nagusia



Mari Luisa Alcorta, Josu Etxaburu, Eli Arrazola, Josean Alguacil, Malen Egurbide, Jone Escudero eta Ainara Etxarte. GURE ESKU

Gure Eskuren Gabonetako Tripontzia zozketaren zenbaki irabazlea Deban egokitu da aurtten. 30.000 euroko sari nagusia *33353 Diaspora* izeneko serieak irabazi du. Lehenengo zenbaki sarituak sari gehiago

ere utzi ditu, izan ere, zenbaki horren gainerako zazpi serieak dituztenek 2.000 euroko diru saria irabazi dute. Herri dinamikako ordezkariak azaldu dutenez, serie horren zenbaki guztiak Itziarren saldu ziren. "Zenbaki sariduna Itziarko Perian saldu zen oso-osorik. Dakigunez, sari potoloa eta beste sei saridun agertu dira; hortaz, saridun bat oraindik agertzeke dago".

Banaketa ekitaldia otsailaren 3an egin zuten Burugorriin, eta bertan Josu Etxaburu Gure Eskuko bozeramailea eta Jexux Olaziregi Gipuzkoako koordinatzailea ere egon ziren; sari nagusia lortu duen herritarra eta gainerako zazpi serieetako bost irabazleak batu ahal izan zituzten talde argazkirako.

Bigarren saria ere ez da hain urruti tokatu, Ondarroan egokitu da. 30453 zenbakiak zortzi serie ditu, eta serie bakoitzaren irabazleari 1.000 euro egokitu zaizkio.

Euskal Herriko Mus Txapelketaren kanporaketa eta finala, Deban

Abian da Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketa eta, antolatzaileek jakitera eman dutenez, Debara ere iritsiko da txapelketa; otsailaren 25ean Arrano Elkartean jokatu dute Gipuzkoako kanporaketa. Izen-ematea 16:30ean zabalduko dute, eta bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko. Lehia, berriz, 17:00etan hasiko da.

Antolatzaileek parte hartzera animatu dituzte herritarrak, eta beste herri batean bizita ere parte

hartu daitekeela gogorarazi dute. Euskal Herriko Mus Federazioak txapelketarako prestaturiko arauen arabera jokatu da lehia. "Arauk eskura izango dituzue lehen saiotik, baita webgunean ere".

Hainbat sari banatu dituzte kanporaketa bukatzean eta, parte hartzaile kopuruaren arabera, Gipuzkoako finalera sailkatzeko aukera egongo dela iragarri dute. "Zenbat eta bikote gehiago aurkeztu, Gipuzkoako finalean orduan eta herriko ordezkari

gehiago egoteko aukera egongo da", nabarmendu dute.


Gipuzkoako finala ere oraingoan Deban jokatu dela iragarri dute. Martxoaren 11n, 15:00etan hasita, Aldats pilotalekuan jokatu da norgehiagoka. "Gainontzeko sei herrialdeetako finalak egun berean jokatu dira".

Zazpi herrialdeetako finaletan sailkatzen direnek martxoaren 25ean Zornotzan jokatu den final nazionalean parte hartzeko txartela eskuratuko dute.

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095

ATE IREKIAK Unibertsitate Graduak

INGENIARITZA

- Goierri-Ordizia MARTXOAK 25
- Bilbao AS Fabrik OTSAILAK 25 / APIRILAK 22
- Arrasate OTSAILAK 25 / APIRILAK 22
- Galarreta EKO Campus-Hernani OTSAILAK 25 / APIRILAK 22
- ONLINE MAIATZAK 23 - 24

ENPRESA KUDEAKETA

- Oñati MARTXOAK 4 / APIRILAK 29 / MAIATZAK 11
- Bidasoa-Irun MARTXOAK 11 / APIRILAK 29 / MAIATZAK 11
- Bilbao As Fabrik OTSAILAK 25 / MARTXOAK 4 - 25 / APIRILAK 29 / MAIATZAK 11 -13

EKINTZAILETZA

- Bilbao BBF OTSAILAK 23 / MARTXOAK 18 / APIRILAK 27
- Bidasoa-Irun OTSAILAK 25 / MARTXOAK 16 / APIRILAK 29
- Oñati OTSAILAK 25 / MARTXOAK 16 / APIRILAK 20

HEZKUNTZA

- Bilbao As Fabrik OTSAILAK 25 / APIRILAK 22
- Eskoriatza OTSAILAK 25 / MARTXOAK 18 / MAIATZAK 20

KOMUNIKAZIOA

- Aretxabaleta OTSAILAK 25 / MARTXOAK 18 / MAIATZAK 20

HUMANITATEAK

- Bilbao As Fabrik OTSAILAK 25 / MARTXOAK 18 / MAIATZAK 20

GASTRONOMIA

Basque Culinary Center

- Donostia MARTXOAK 4 / MAIATZAK 6

Learning
from
reality



Otsaila / Martxo

OTS. 25 (LARUNBATA)

EUSKAL HERRIKO MUS TXAPELKETA

16:30 Debako kanporaketa. Izen-ematea: 20€ / bikoteko. Arrano Elkarte.

TAMARINDO EGUNA

10:00 Ekin Berdea proiektuaren baitan. Izen-ematea: debanatura@hotmail.com Foruen Plaza.

OTS. 26 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

OTS. 27 (ASTELEHENA)

IRAKURKETA KLUBA

19:00 'El bosque de mi padre' (PaPusza). Ostolaza Udal Liburutegia.

MAR. 4 (LARUNBATA)

BAIONARA TXANGOIA

09:00 Arrano Elkarteak antolatuta. Txartelak: 25€, Labatai eta Arkatzen salgai.

ESKU PILOTA TXAPELKETA

10:00 LH 3-4-5-6ko haurrentzat. Aldats pilotalekua.

MAR. 5 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

MAR. 6 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

MAR. 7 (ASTEARTEA)

HITZALDIA

19:00 'Substantziarik gabeko adikzioak' (Jessica Rodriguez). Zubi Guraso Elkarteak antolatuta. Kultur Elkarte.

MAR. 9 (OSTEGUNA)

DASTAKETA (ERRIGORA)

18:30 Zuhatza Euskara Elkarteak antolatuta. Izen-ematea: 688 84 03 08. Kultur Elkarte.

MAR. 16 (OSTEGUNA)

ITSASPEKO ZINEMAREN NAZIOARTEKO ZIKLOA

18:30 Kultur Elkarte.

MAR. 17 (OSTIRALA)

HITZALDIA

19:00 'Miñan' (Amets Arzallus). Mogel Guraso Elkarteak antolatuta. Kultur Elkarte.



MODA DESFILEA

22:00 Sarrera: 5€, Turismo Bulegoan eta bertan salgai. Aldats pilotalekua.

MAR. 19 (IGANDEA)

ZINEMA

16:30 'Trash' umeentzako zinema. Kultur Elkarte. 19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

MAR. 20 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

MAR. 23 (OSTEGUNA)

ITSASPEKO ZINEMAREN NAZIOARTEKO ZIKLOA

18:30 Kultur Elkarte.



MAR. 25 (LARUNBATA)

TXIRRINDULARITZA

10:45 XXXII. Deba Saria (kadeteak). Foruen Plazatik hasita.

MAR. 26 (IGANDEA)

ZINEMA

19:00 Debadezineren eskutik. Kultur Elkarte.

MAR. 29 (ASTEAZKENA)

IRAKURKETA KLUBA

19:00 'Narrazioak' (Joseba Sarrionandia). Ostolaza Udal Liburutegia.

MAR. 30 (OSTEGUNA)

ITSASPEKO ZINEMAREN NAZIOARTEKO ZIKLOA

18:30 Kultur Elkarte.

MAR. 31 (OSTIRALA)

KULTUREKIN

22:00 Kontzertua: Xahu + Jazz jam session. Sarrera: doan. Kultur Elkarte.

LEHIAKETA

Martxoaren 10era arte:

"DEBA 100 HITZETAN" literatur lehiaketa.

Debarekin lotura duten 100 hitzeko kontakizunak bidali ahal izango dira, euskaraz zein gaztelaniaz.

IKASTAROAK

Martxoko eskaintza:

IKASTAROAK KZgunean.

Aurrez aurrekoak, urrunekoak eta bideokonferentzia bidezkoak. Orduategia: martxoaren 1etik 15era, 16:00etatik 20:00etara.

Eskualdeko Agenda

MUTRIKU

MENDI ZIKLOA

Otsailak 28 (asteartea)

19:00 'Ruiz de Arkaute: XX. mendeko espeleologiaren euskal erreferentea' hitzaldia, Oier Gorosabelen eskutik. Zabil Kultur Etxea.

SORALUZE

ERAKUSKETA

Otsailak 28ra arte

Aitor Ruiz de Eginola artista plastikoaren 'Nazatugi' erakusketa. Oreka Art Galeria eta Udaleko Erakusketa Gela.

ERMUA

KONTZERTUA

Martxoak 10 (ostirala)

20:30 Ainoa Buitrago. Sarrera: 10€. Herriko Antzokia.

ELGOIBAR

KONTZERTUA

Martxoak 17 (ostirala)

Go:azen 9.0. Bi saio izango dira: 17:00etan eta 19:00etan. Sarrerak: Helduak 5€ / Haurrak 3€ / Gazte Txartela 3€. Herriko Antzokia.

Jarraitu gaitzazu!

berriketan.eus

Zuhatza Euskara Elkartea



HURRENGO HITZORDUAK




berriketan.eus/agenda

IRAGARRI ZURE EKIMENA

Ekimenen bat iragarri nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan martxoaren 20a baino lehen.
berriketan@zuhatza.com
 943 19 13 83

Telefono jakingarriak

Zuhatza Euskara Elkartea	943 19 13 83	Haur Eskola	943 19 20 81
Debako Udala	943 19 28 40	Luzaro (Ifar kalea, HH)	943 89 91 55
Itziarko Auzo Udala	943 19 92 55	Luzaro (Itziarko bidea, LH)	943 89 91 54
Udaltzaingoa	689 12 58 89	Luzaro (Itziar, HH)	943 89 93 27
Bake epaitegia	943 19 23 53	Luzaro (Itziar, LH)	943 19 93 06
Eguneko Zentroa	943 19 29 33	Mendata BHI	943 89 92 65
Turismo Bulegoa	943 19 24 52	Deba Musikal	943 19 20 16
Ostolaza Udal Liburutegia	943 19 25 60	Helduen Heziketa Iraunkorra	943 19 21 76
Kirolegia	943 19 22 62	Debabe Euskaltegia	943 19 22 36
Ertzaintza (Eibar)	943 53 17 00	KZgunea	943 02 36 29
Osasun zentroa (Deba)	943 19 24 24	Gaztelekua	943 19 27 62
Osasun zentroa (Itziar)	943 19 90 42	Landide	945 16 06 00
Itziarko Botikina	687 75 67 21	Correos	943 19 17 99
Botika - A. Zalduegi	669 26 22 01	Mankomunitatea	943 70 07 99
Botika - Burgoa Zuazo	667 33 88 90	Ur Zerbitzuak	943 60 80 02
Gurutze Gorria	943 19 10 32	Debegesa	943 82 01 10
DYA Larrialdiak (Gip.)	943 46 46 22	Euskotren	944 33 33 33
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00	Lurraldebus	900 30 03 40
Eibarko Ospitalea	943 44 90 00	Debako Parrokia	943 19 14 97
Donostiako Ospitalea	943 00 70 00	Itziarko Parrokia	943 19 93 04



ZAINTZAKO BOTIKA
Egunez, 09:00etatik 22:00etara

BURGOA ZUAZO martxoak 10, 11, 12, 20, 21, 22, 23.

ZALDUEGI otsailak 24, 25, 26 / martxoak 6, 7, 8, 9.

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik.
Toribio Etxebarria, 4 - 943 20 23 44

DEBAKO BOTIKAK
ZALDUEGI 669 26 22 01
BURGOA ZUAZO 667 33 88 90

Larunbat goizetan beti bat irekita:
BURGOA ZUAZO
 martxoak 4 eta 11
ZALDUEGI
 otsailak 25 / martxoak 18 eta 25





Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa

info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
 Kirurgia
 Implanteak
 Ortodontzia tradizionala
 Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
 Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

PILARIK GABEKO AUDIFONOAK
PROBATU HILABETEZ DOAN

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

Deba-Itziar BIRA



URTARRILEKO SARI DUJAK

1. Saria: Edurne Aristi, Amaia Larrañaga, Manex Astigarraga, Nere Oria, Kontxi Martinez. **2. Saria:** Oihana Esnaola, Sabas Bedialauneta, Xabier Ciaran, Angel Mari Galindez, Edurne Aldape, Begoña Aizpurua, Jagoba Egaña, Eider Aldalur, Miren Itziar Galarraga, Aitor Larramendi.

URTARRILEKO ERANTZUN ZUZENAK

- 1 > 112,5 kg
2 > Gerar Orozcorena
3 > Alaitz Melgarrek
4 > Erreboiloa
5 > Urteak bete, abenturak bizi
6 > Libera



1 > Zein da Endoian bizi den Aitor Huelgo musikariak kaleratu duen diskoaren izenburua?



a) Jose Ignacio Urbieto
b) Isaak Arrizabalaga

2 > Nor da erreka ondoko pasealekuan dagoen Pentsalaria eskulturaren egilea?

d) Jorge Oteiza
e) Zuriñe Gredilla



3 > Zein izan da Iker Agirrezabalak orain arte arrantzatu duen arrainik handiena?



4 > Zein motakoa da ezkerreko argazkiko hegaztia?

a) Zozoa
b) Belea
d) Sorbeltza
e) Belatxinga mokohoria



5 > Zein zientzialari debar omendu dute aurten #O11 erakusleioak ekimenaren baitan?



6 > Zein pisu kategoriatan aritzen da Cheickh Mbengue boxeolaria?

a) Super welter
b) Erdi astuna
d) Astuna
e) Super astuna

OTSAILEROKO BIRA

Parte hartzeko: www.labor.eus/bira_otsaila
Erantzunak bidaltzeko azken eguna: martxoak 14
Irabazleen izenak datorren alean argitaratuko dira.
Animatu eta parte hartu!

SARIAK

- Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean **Martin Sukia** artisauak egindako larruzko poltsa bat banatuko da.
- Parte hartzaile guztien artean **Martin Sukia** artisauak egindako bi pieza banatuko dira.

Informatika
Tresneria
informatikoa

Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
Maxpe kalea, 7 - behea | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

**SALMENTA, ALOKAIRUAK,
ABOKATUA**
Arakistain plaza 2, behea - Deba

Tel.: 943 19 22 63
www.atarideba.com

ieraenea
okodena

"maile ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6r 20820 DEBA
Telf: 943 53 95 20 - E-mail: ieraenea@gmail.com

k
kutxabank

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Frontartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza - Tel.: 943 192 576
20820 DEBA

ME ENDAÑETA
muebles altzariak

Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziaroko gaina
T.: 943 19 91 00
F.: 943 19 91 01
ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

Mikel ITURGINTZA

- GASA
- BEROKUNTZA
- ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774
M. 699 975 206
info@mikeliturgintza.eus

ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ARKATZA

Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Calbeton



JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

50 URTE BURU - ZURI Taberna



- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gaueetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA

TaxiAlain Deba

LIZ-ZK.: 3

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

Seven Clovers

Irish pub

943 191 295



Janire & Maitane
ileapaindegia

Iturkale 2 behea - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi

pentsioa

Tel.: 688 800 619
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com

ENGLISH SQUARE



SCHOOL OF ENGLISH

INGELES AKADEMIA

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206
info@english-square.net

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

ORAIN

ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

martxoak 9 - 29

**Nafar hegoaldeko uzta
Zuhatza Euskara Elkarteko
bazkideen eskura**

Bat egin Errigora Balioekin

*Eskatutako produktuak Deban jasotzeko aukera izango dute zuhatzakideek



 <p>El Escalar Iturri La Churta Zainzuriak Zainzuri zuri lodiak (6/12) 370ML-KO 12 ONTZI 48€ 4.00€/u</p>	 <p>El Agricultor El Escalar Iturri Zainzuriak Zainzuri zuri lodiak (8/12) 425ML-KO 12 ONTZI 46€ 3.83€/u</p>	 <p>Iturri El Escalar La Churta Piperrak Pikillo piper osoak (9/12) 250ML-KO 12 ONTZI 38€ 3.16€/u</p>	 <p>El Agricultor El Escalar Piperrak Pikillo piper osoak (18/22) 425ML-KO 12 ONTZI 36€ 3.00€/u</p>	 <p>Ebrón Orburuak Orburu bihotzak 720ML-KO 12 ONTZI 84€ 7.00€/u</p>		
 <p>Ebrón Orburuak Orburu bihotzak 720ML-KO 12 ONTZI 69€ 5.75€/u</p>	 <p>La Churta Kardua Kardu zuritua 720ML-KO 12 ONTZI 28€ 2.33€/u</p>	 <p>Ebrón Kardua Kardu zuritua 720ML-KO 12 ONTZI 25€ 2.08€/u</p>	 <p>Ebrón Menestra Barazki-menestra 720ML-KO 12 ONTZI 78€ 6.50€/u</p>	 <p>Bardeoa Arbendolak Azalorekin, zurituak eta bigortuak 130G-KO 12 ONTZI 45€ 3.75€/u</p>		
 <p>Ebrón Barazkiak Barroja, zerba-penkak eta lekak 720ML-KO 12 ONTZI 38€ 3.16€/u</p>	 <p>Ebrón Barazkiak Barroja, zerba-penkak eta lekak 720ML-KO 12 ONTZI 30€ 2.50€/u</p>	 <p>La Churta Enara Tomatea Tomate frijitua 370ML-KO 12 ONTZI 23€ 1.92€/u</p>	 <p>Iturri Tomatea Tomate frijitua 370ML-KO 12 ONTZI 19€ 1.58€/u</p>	 <p>La Churta Txitxiriok Txitxiriok 720ML-KO 12 ONTZI 27€ 2.25€/u</p>		
 <p>El Escalar Potxak Potxa zuri eta berdeak 720ML-KO 12 ONTZI 43€ 3.58€/u</p>	 <p>El Alcaraván Arroza Arroz integral erdiluzea KILOKO 12 PAKETE 51€ 4.25€/u</p>	 <p>El Alcaraván Arroza Arroz zuri erdiluzea KILOKO 12 PAKETE 55€ 4.58€/u</p>	 <p>El Alcaraván Arroza Lido arroza KILOKO 12 PAKETE 26€ 2.17€/u</p>	 <p>Pasta Martineilli Pasta Makarroi buria, fusilli albahaca eta pikillo Fusilli 400GR-KO 12 PAKETE 45€ 3.75€/u</p>		
 <p>Haziak Lekaleak Dilista eta txixirio lehorak 500G-KO 12 PAKETE 33€ 2.75€/u</p>	 <p>Bardeoa La Casa del Aceite Arbekina Oliba-olio birjina estra ekologikoa 5 LITROKO ONTZIA 40€ 8.00€/l</p>	 <p>Biosasun Enara Arroitz Oliba-olio birjina estra ekologikoa 5 LITROKO ONTZIA 44€ 8.80€/l</p>	 <p>Bardeoa Biosasun Enara Arroitz + arbekina Oliba-olio birjina estra ekologikoa 2 LITROKO 2 ONTZI 37€ 9.25€/l</p>	 <p>Castilla de Abitios Enpeltre Oliba-olio birjina estra 5 LITROKO ONTZIA 30€ 6.00€/l</p>	 <p>La Casa del Aceite Castillo de Abitios Arbekina Oliba-olio birjina estra 5 LITROKO ONTZIA 30€ 6.00€/l</p>	 <p>La Casa del Aceite Pikual Oliba-olio birjina estra 5 LITROKO ONTZIA 30€ 6.00€/l</p>